


COVID neurrien indartzea

Azken egunotako datu eta albisteak ikusita, guztiok gara jakitun COVID 19aren 3. olatua bertan dugula. Ikasturte hasieratik seriotasunez eta elkarlanean heldu diogu birus hau prebenitzeko [lanketari](#). Osasun- eta higinene-neurriak betetzearen garrantzia azpimarratu nahi dugu oraingoan ere. [Zirkular orokorra](#).

[HH Zirkularra](#).



Eskola-kirola

Jakingo duzueenez, aste honetan Donostian "eremu gorri" horretan sartu gara, beraz Eskola Kiroleko jarduna etetera behartuta gaude. Bestelako neurriak ezartzen ez den bitartean, inzidentzia tasa 500/100.000-tik behera jatsi bezain pronto berreskuratu ahal izango dugu Eskola Kiroleko jarduna.

[Zirkularra](#).



Kaldereroak

Datorren ostiralean, otsailak 5, Kaldereroak ospatuko ditugu Ikastolan. Aurten ezingo dugu Groseko kaleetan zehar konpartsa osatu, eta Ikastolan bertan abestu eta dantzatuko dugu prebentzio-neurri guztiak betez. Tamalez, gurasoak ezingo zerete ospakizuna ikustera etorri, baina Atariaren bitartez emango dizuegu ospakizunaren berri. Hemen dituzue abestuko ditugun [doinuak](#). [Zirkularra](#).



Euskal Inauterien ospakizuna bertan behera

Otsailaren 12an Euskal Inauterien festa ospatzeko asmoa agertu genizuen Atariaren bitartez. Pena handiz gatozkizue gaur, jaia bertan behera uzteko erabakia hartu behar izan dugula jakinaraztera. [Zirkularra](#).



OHARRAK / AGENDA:

- **HH5:** Hurrengo astean ez da Basoeskolarik izango.
- **LH5-6 / DBH1-2:** Guraso-eskola: Teknologia berrien inguruko saioak. [Izen-ematea](#). (DBH azken eguna: otsailak 1 / LH azken eguna: otsailak 8).
- **Komunikazio-batzordea:** Parte-hartzeko [galdetegia](#).
- **Kirol Elkartea:** Batzar Nagusia. Otsailak 11. 17:00. [Zirkularra](#).
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Batzar Nagusia. Otsailak 10. 18:45. [Zirkularra](#).
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Brianen bitzita. Antzezlan. Urtarrilak 29-30. [Gonbidapenak](#). [Kartela](#).
- **Jangela:** Otsaileko [menua](#).

